


JEINUAK BIZKAIKO MENDIETAN


—Zatoz nire altzora. Nahi baduzu ipuin berezi bat kontatuko dizut gaur— esaten zidan amonak. Bere ahotik ezagutu nituen Mari, Akerbeltz, Basajaun, Lamiak, Tartalo, Jentilak, Zezengorri, Sugaar, Herensuge... Nire amonari bere amonak kontatzen zizkion baserriko sukaldeko sutondoan, eta haren amonari bere amonak, haitzulo atariko sutondoan. Gaur egun, niretzat, mendira joatea ez da naturara ihesaldi hutsa, gure arbasoen mundu mitologikora bidaiatzea baizik. Euskaldunon antzinako jainko eta jeinuak, gure artean bizi dira, mendietan, kobazuloetan, basoetan, ibaietan... eta ez zeruan, beste kultura askotan bezala. Leku hauek misteriotsuak dira, naturaz gaindiko gertaeren toki, edota jeinuen bizileku. Bizkaian ezagunena, Anboto da, Mariren, jeinu gorenaren, bizileku izategatik. Itxinako Supelegor kobazuloa ere Mariren bizileku da. Otsabideko lapurraren altxorra Itxinan zaintzen du Zezengorrik. Urregarai eta Baltzolan bizi dira jentilak. Dimako Lamindaon eta Orozkoko Garaigortan biltzen dira sorginak akelarrean, eta Oiz eta Urregarai mendien artean agertzen omen da Tartalo. Orain alabatxoekin joaten naiz jeinuen mendietara, haitzuloetako nire arbasoen sinismenak nire ondorengoei transmititzera.

TESTU ETA ARGAZKIAK



Asier Aranzabal Maiztegi

Eibarren jaio eta hazi arren, gaur egun Amorebieta-Etxanon bizi da. Gaztetatik Euskal Herriko eta Pirineoetako mendietan ibiltzeko eta baita naturari argazkiak ateratzeko zaletasuna izan du. Zaletasun hauei lotuta, Mila Gallastegirekin batera munduan zehar bidaiatu dute. Natura eta kultura desberdinak oinez, kanoaz, zaldiz... elkarrekin batu eta argazkietan jaso zuten. Esperientzia hauek ikus-entzunekoen bidez erakutsi izan dituzte plazarik plaza eta baita Pyrenaican ere. Berria egunkariarekin kolaboratu du Bizkaiaiko mendi ibilbideak idatziz. Gaur egun Milarekin eta Uxue eta Garaiz alabekin ematen ditu oporrak Europako erreka handien ondoan bizikletaz zeharkaldia luzeak eginez. asiermila@gmail.com



Urregarai (704 m) karehaitzeko muinoan jolasten ohi ziren Jentilak potillotxuan

SUGAAR ETA BALTZOLAKO KOBAK

Dimako herria eta bereziki Indusi auzunea oso oparoak dira elezaharretan. Ez da harritzekoa, inguruko mendigune karstikoak eta malkartsuak egundoko haitzulo-sistema baitu bere barruan. Baltzola kobazuloaren inguruetan, lamiei, jentilei eta sugaari buruzko hamaika kondaira jaso dituzte Jose Maria Salbidegoitia eta Jabier Les espeleologoek eta Juan Manuel Etxeberria Ayesta hizkuntzalariak.

Dimatik Otxandiorako errepidean dago Indusi baserri auzoa. San Frantzisko ermitatik Zamakola auzora doan errepidean, Indusi errekararen gaineko zubian hasten da PR-BI-41 ibilbidea. Zementuzko aldapak Gibiltar baserriraino garamatza. Baltzolako lamiek baserrikoak izutzen zituzten garai batean, etxe honetako emakume batek lamia bati urrezko orrazia lapurtu ondoren; Jentilzubin eserita, lamiari eskutik labain egin zion orraziak eta bidera erori zitzaion. Metro batzuk aurrerago



Baltzolako kobaren barruan



aurkituko dugu Jentilzubi, Kobako erreka zeharkatu ondoren. Hemengoek uste dute arku erraldoi hau jentilek jasotakoa dela, baina ezin izan zuten erabat osatu, San Frantzisko ermitaren kanpaiak entzutean desagertu egin baitziren lamiekin batera. Fedegabe basati hauek aldameneko Axlor kobazuloan bizi omen ziren. Kobazulo honetan aurkitu zuen Joxemiel Barandiaranek Bizkaia osoan dagoen giza presentziaren testigantzarik zaharrena, Neanderthal gizakiena hain zuzen.

Jentilzubiren azpitik igaro eta berehala, zulo handi bat ikusiko dugu kareharrizko horman: Baltzola haitzuloaren ipar-ekialdeko sarbidea da. Markaturiko bideari jarraituz gero, aldiz, hego-ekialdeko sarrera errazagoa aurkituko dugu laster. Nimiñoak sentitzen gara Kobagane (428 m) mendiaren barrunbe erraldoi honetan, Sugoi edo Sugaar, nondik agertuko ote den zelatari. Batzuetan suge itxurarekin agertzen da, beste batzuetan gizaki itxurarekin. Buztana moztu omen zion harrikada batekin Dimako bi anaietako gazteenak. Handik urteetara, anaia nagusiari, herritik urruti zebilela eta herrimina zuela, gizaseme misteriotsu bat agertu zitzaion, eta Baltzolako leizera ekarri zuen. Hemen, urrez gaindi kutxa bat opari egin zion; anaiarentzat berriz gerriko gorri bat eman zion. Honek, gerrikoa jantzi nahi ez eta zuhaitz bati lotu zionean sua hartu eta sekulako zuloa sortu zen. Orduan konturatu ziren Sugoi oraindik mendeku bila etorri zitzairela gizon misteriotsu gisa.

Ezkerrera zuzenduz eta esku-argi baten laguntzaz, ipar-ekialdeko ahora irten gaitzke. Aldiz eskuinerantz joz gero, pasabide txiki bat zeharkatu eta irteeran Behikobera edo Abaroko tunelera eramango gaituen zidorra aurkituko dugu. Berori zeharkatu eta aldapa txiki bat igo ondoren, bidexka errekararen ondoan sigi-saga doa argigune bateraino. Erreka zeharkatu eta eskuinean dago bide nagusia, Baltzola auzuneraino joateko. PR-BI-41 ibilbidearen marka zuri-horiei jarraikiz Garaio (574 m) tontorreraino igo gaitzke eta ondoren Baltzolako kobazulora jaitsi. Tontoretik sekulako ikuspegi daukagu. Aurrez aurre Urrekoatxa (588 m) mendi malkartsua, Lamindao eta Goikogan lepoen artean. Lamindao auzoa, kondaira eta istorio oparoen gordelekua da; izenak berak dion bezala, laminen batzarleku zen. Bertan, *Petralanda* izeneko lekuan ere Akelarreak egin zirela jaso izan dute etnologo askok.






Urregarai (704 m) gailurreko Santa Eufemia basiliza, eta atzean Bedartzandiren (701 m) gandorra

URREGARAIKO (704 m) JENTILAK

Aulesti eta Markina-Xemein artean kare-haitzezko mendigune malkartsua altxatzen da. Mendigune honek Lea eta Artibai ibaien arroak bata bestearengandik bereizten ditu, lehendabizikoa Lekeitiora bideratuz eta bigarrena Ondarroara. Gailurrik garaienak Igotz edo Urregarai (704 m) eta Bedartzandi (700 m) dira. Mendigune honek badu gainera misterio giroa, Urregarai tontorrean eraikitako Santa Eufemiako basiliza Euskal Herriko erromesgune garrantzitsuenetakoa baita. Baina hori baino lehenago, paisaia patartsu honetan Tartalo eta Jentilak bizi izan ziren, eta Mari bera ere hemendik ibilitakoa da.

Santa Eufemiako zelaixe (560 m) izenaz ezaguna den bi tontorren arteko lepoan hasiko dugu ibilaldia. Bertara auto errepidea heltzen da Markina eta Aulesti arteko Lekoitz gaineratik

abiatuta. Atxagarai aterpetxearen atzealdetik hasten den bideak, pinu artean lehendabizi eta altzifre artean geroago, esemeseka doa zelai zabal bateraino. Zelaitik bertatik gailurra eta



Santa Eufemiako basiliza ikus ditzakegu, 223 eskailera-mailen gainean. Hauetan gora egin izan dute urte eta mendeetan zehar milaka erromesek irailaren 16an, batzuetan euritan eta bestetan eguzki-galda beroaren azpian, gerrian argizaria lotuta, horrela gerriko eta mokorreko minak arinduko zitzaizkien fedearekin. Beste asko ordea jai girora etorri izan dira, baita tratuak ixtera ere. Ezkongai-aldi asko hementxe uztartu izan dira.

Antzinako jentilek ere ikusmira pribilegiatua zuten talaia honetatik. Joxemiel Barandiaranen esanetan, jentilek mendi honetako harrobi bat ustiatzen omen zuten. Anton Erkoreka historialariak jasotako kondairak dio, Xemeingo eliza eraikitzeo harriak, abailaz jaurti zituztela jentilek tontorretik. Potxilluan jolasteko ere egundoko harritzarrak jaurtitzten omen zituzten Beñepena mendiko "Jentillen Potxillue" izeneko leizera. Bai-



na jentilak ez ziren mendi hauetan bizi ziren gizon handi bakarrak. Willian Rollo eskoziarrak 1925an Markinako euskararen inguruko ikerketan jasotako ipuin batek honela dio: "Marrkinako lurraldien bisi san gison bat, gison-jallie, Alarabie esatejakona. Anka-bakarra ta begi-bakarra san, eurixe sanien bere onas estaltxen san. Arrtsane ta arrtaldi aundixan jabe san. Kobau baten bisi san eta kobauan atetsat arri aundi bat euken". *Markinako jaietan*, gaur egun oraindik, ohitura dago *Alarabiaren* irudi bat erretzeko.

BEDARTZANDIKO (700 m) MARI

Santa Eufemiako zelaixen bueltan, ekialderantz ibili behar dugu pago artean. Lepoa zeharkatu eta bidea Markinarantz jaisten hasten den unean, etxe baten azpian ezkerrera hartu behar da Bedartzandi mendiaren gandorrera-


ino heltzeko. Gailur-lerroari jarraikiz mendebaldeko norabidean, zeharkaldia egin behar da tontorreraino, itsasaldeko ikusmira alde batera eta barnealdeko mendien ikuspegia beste aldera, behin eta berriz dastatuaz. Zeharkaldi entrenigarria da, gandorraren ikuspegiagatik eta bidea norberak egin behar duelako.

Gandorraren eskuin aldera (ipar aldera) Gabaro izeneko meseta karstikoa ikus daiteke, artadiz estalita. Barrunbe interesgarri bat ere bada bertan, Anbotoko Mariren ezkutalekua ere badena. Elezahar batek dioenez, neska artzain gaztea kobazulora hurbildu eta Marik bahitu egin zuen. Urteak eman zituen neska gizajoak Marirentzat joste lanetan eta ez zen sekula kanpora irten. Behin, ihes egiteko aukera eman zion baina neskak ez zuen nahi izan. Marik ikatz zatia eman eta atera egin zuen neskatoa. Eskuartearen zuena urre gorri bihurtu zitzaion orduan. Lepo txiki batean zelaixera

zuzen jaisteko bide markatuarekin bat egingo dugu. Berehala gaude gailurrean. Bertatik Urregarai tontorraren kare-haitzeko gandoria bertikala ondo bereiz daiteke, eta irudimen pixka batekin Jentilak dantzan.

GARAIGORTAKO (662 m) AKELARREAK

Orozko Garaigorta mendian sorginak biltzen zirela jaso zuen Barandiaranek. Anuntxi Arana antropologoak ere Orozkora jo zuen bere doktorego-tesia egitera. Bertako zaharrek mintzatuz makina bat elezahar jaso zituen. Juan Pikazak kontatu zion Garaigortako Atxean akelarreak egiten zirela eta apaizek zuzentzen zituztela. Agustín Zubikarai euskaltzainak ere horrelako abade baten berri eman zuen: "Aizpuru'ko abadea orozkotarrak almen andiko gizontzat euken. Sorgiñen eta lamiñen lagun, eta



Andra gazte edo umien oiñatsak sarri ikusi zituena artzainak bere artean, Anboto'ko damiak, Orozko'n, antxe eukan bere etxea. Zaindariz beteta; saiak, erderazko itzez buitreak zaindari. Sai oneik urrundu egiten ei ziran abadea bertara joaten zanean. Edo ta berak agintzen eutsen bazterrean gelditu. Garaigorta'ko aitzaren azpian barikuetan batzen ziran sorgiñak be lotsaz begiratzen ei eutsen".

Batzarleku hauek ezagutzeko, Orozkotik 10 km-ra dagoen Ibarra auzotik hasiko dugu txangoa PR-BI-32 ibilbidearen margo-zuri horiei jarraikiz. Marka asko ez daude, ordea. Sorginek ezabatuta akaso? Ibarako plazatik irten eta Orozko-Artea errepidearen aldamenean, zubi zaharra zeharkatu eta aurrez-aurre dauden es-


eskutuko espirituena bildurgarri. Ainbat esaera eta gertaera dagoz erriko zarren kontuetan berari buruz. Inor ez ein zan ausartzen lengo denporetan Supelegor'eko kobara aurreratzen.

Behikobea edo Abaroko tunelaren hegoaldeko sarrera



kaileretatik gora hasiko dugu ibilia. Porlanezko bidean San Bartolome Olartekoa Baselizaren ondotik pasatuz, eta betiere eskuineko adarrak hartuz, Egurrutu auzoraino igoko gara. Zelai zabalen artean, ikuspegia sekulakoa da. Leku ederra sorginak bildu eta sorgin-dantza ikusteko, akelarre asko larretan, landetan edo zelaietan egiten baitziren, izenak berak adierazten duen bezala. Bidegurutzetan ere ospatzen omen ziren. Altsasun esan ohi da bidegurutzetan "Luzifer" usaina badela. Orozkoko Sofik ere bidegurutzeak leku arriskutsuak zirela aitortu zion Anuntxiri; abadeak Aita Gurea esaten omen zuen beti bidegurutzetatik pasatzerakoan.

Egurrutu auzoko hiruzpalau baserriak igaro ondoren pinudian sartu eta ipar-ekialderantz bulldozerrak urratutako bidetik jarraituko dugu Atxa aurrez-aurre izan arte, bidegurutzetan ezkerrekoa aukeratuz. Bidezidor estu batek kare-haitzezko paisaia karstikora garmatza aldatsean gora, harriaren pitzaduretatik ateratzen diren arte txikien bitartean, mar-



Garaioaren (574 m) ikuspegia Lamindaotik arrastian

karik gabe. Oinatzek ilundutako haitzak gidari, eskuinerantz alboratu behar da behinka.

Gailurra (662 m) haitzezko gandor luzea da, iparralderantz amildegi arriskutsuarekin. Ikuspegia sekulakoa da. Mendi gisa mendilerroaren ekialdeko muturrean kokaturik, Zeberioako bailara alde batean eta Orozkokoa bestean bereiz daitezke. Eskuinera, Bikotz-

gane gainaldeko errepeida dago, eta honen gainean, Itxinako Atxak, hainbat jeinuren bizileku, Marirena besteak-beste. Ez da harritzekoa, beraz, energia berezia duen leku honetan, Akerbeltzek, Mariren parekoa den jeinuak, sorginen eta aztien batzarrak zuzentzea.

Etorritako bidetik jaitsiko gara abiapuntura, sorginak eta akelarreak burutik ezin

kenduta, Agirre Asteasukoaren sermoia gogoan: "Bitartean ibilico dira becatutic becatura amilduaz; oraiñ pentsamentu batean gueroseago itz loyak gozotora aditzean: oraiñ escuca, edo queñada batean, guero musu edo laztanetan: oraiñ ipui ciquiñac contatzen; guero dantzan, edo dantza ondoan alberdaniañ".

BIBLIOGRAFIA

ETXEBERRIA AYESTA, J.M. *Gorbeia inguruko etno-ipuina eta esaundak II*. Euskaltzaindia, Bilbao 2016.

LES, J., *La Cueva del Baltzola: Del mito a la ciencia*, Bizkaia Foru Aldundia, URL: http://www.bizkaia21.eus/fitxategiak/09/bizkaia21/Territorio_Sostenible/dokumentuak/20110315142206394_Balzola%20del%20mito%20a%20la%20ciencia.pdf. Azkenez ikusia 2017-12-19.

Barandiaran, J.M. (1973). *Eusko Folklore, II*. Liburukia; Obras Completas bilduma, Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

Kaltzakorta, J. (1992). *Bizkaiko herri-ipuina idatziak*. Euskera agerkaria, XXXVII (2.aldia), 477-496.

Erkoreka, A. (1972). *Los Gentiles: El mito de los gigantes en el País Vasco*. Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra, 23, 309-366.

Salbidegoitia Arana, J.M. (1972). *Bizkaiko mitologiadun koba eta leizen bilduma*. Kobie, 4, 28-64.

Arrinda, A. (1973). *Euskal herri zaharreko Jainko Txikiak*. Ed. Kardaberaz Liburuxkak 3. Bilbao.

Hartsuaga, J.I. (2011). *Mitología vasca comparada el fin de los gentiles*. Ed. Hiria. Donostia.

Arana, A. (1998). *Orozko araneko kondaira mitikoak: bilduma eta azterketa*. Ed. UPV/EHU.

Zubikarai, A. (1982). *Gure inguruak: Euskal herri batzuen ikuspegi laburra*. Ed. Gaubeka. Gernika.

Amaroa Kultur Elkartea. Euskal Mitologiaren Ataria. URL: www.amaroa.com. Azkenez ikusia 2017-12-19